

"Loti ederrak"
Yasunari Kawabata
Alberdanla / Elkar, 2006

Imajina ezazu hondartza huts bat. Udagoien hondarretan. Zu besterik ez zaude. Begiak zarratu itzazu, entzumena zorroztu eta irudimenak ekarri eta eraman dezala itsasoa. Uhainak apurtzen sentituko dituzu, hur-hurrean. Sorrera eta haustura. Eta halako batean barru-barneko kolpe batek begiak zabaldu araziko dizkizu. Dena berdin dago. Hutsik jarraitzen du hondartzak. Zu baino ez zaude. Baina zerbait jazo da. Zerbaitek diotsu armonia apurtu egin dela.

Horixe da liburu honek nigan sorrarazi duena.

Idazleak bikain murgiarazten zaitu ekialdeko giro misteriotsu eta arrotz bezain erakargarri horretan. Agure bat, zerbaiten bila... zeren bila? Aitorgarria da bilatzen duena? Aitortzen al dio bere buruari? "Etxe hartara hurbiltzen ziren agure errukarren zaharmin higuigarriak urte gutxi barru hertsatuko zuen Egutxi ere".

Egutxi da protagonista. Behin baino gehiagotan irakurriko diozu 67 urte dituela baina ez dela agure. Oraindik ez.

Nik justifikazio lar ikusi dizkiot agureari... edo beharbada agurearen istorioa kontatzen digunari. Besteak dira agureak, besteak dira higuigarriak besteak dira neskekin oheratzen direnak. Besteak, beti. Beti, besteak.

Onartu behar dut idazkera ederra dela, lirikotasun handiarekin jantzia.

Ibon Uribarrik euskaratu du, eta egindako lana txalotu egin behar da. Euskaratu baino gehiago egin duela esango nuke, Japoniaratu gaitu. Hasieran zertzelada batzuk eman dizkigu; egileaz, Japoniaz, bere literaturaz. Eta hau dena gutxi balitz, erabiltzen diren berba askoren esangura ere ekarri digu amaiera aldean paratutako hiztegitxuarekin. Eskerrak horri. Ez naiz nekatuko esaten: zein eder, txukun eta ondo daude azken urteotako euskaratzeak, itzulpen batzuk. "Baina errudun sentimendurik gabe ordaintzen al zuten agureek eskaintzen zitzaizkien neskato gazteengandik? Ala erruduntasun sentimendu sekretuak, aitzitik, poza gehitzen zien?".

Istoria zoragarri esaten du egileak, zoragarri eramaten zaitu, liluratzeraino. Baina nik atera dizkiot baina zenbait, zenbait gauza ere aitortu dizkiot, baina hori dagoeneko esistitzen ez den Kawabata eta bion artean geratuko da.

Patxada eman dit irakurketak... baina ezinegona ere bai.